

IRLANDAN IKASTURTEA

*Ikasturtea Irlandan egin?
Noski baietz!*



Arrazoi asko daude ikasturte bat Irlandan egiteko. Europako herrialderik politenatariko bat bezala ezagutzen da, eta ezaguna da irlandarren adeitasun eta zintotasunagatik, urte asko daramatza ingelera bigarren hizkuntza bezala irakasten eta hezkuntza sistema bikaina du.

Irlandan ikasturte bat egiteak ondorengo alderdiez baliatzea suposatuko du:

- Irlandarrekin batera elkarbizitza egingo duzun eta lagun

berriak egingo dituzun ikastetxe batean ikasiko duzu. Gainera, Europako onenatariko bat bezala kontsideratuta dagoen hezkuntza sistema batean ikasi ahalko duzu.

- Familia irlandar batekin biziko zara, horrela beren ohiturak, kultura eta usadioak ezagutuko dituzu.
- Eta nola ez, zure ingeleraren ezagupena perfektionatuko duzu. Dударik gabe, ikasturtea Irlandan egitea zure formaziorako aukera bikaina da!

IKASTETXEA

Ikastetxe mistoak, mutilenak eta neskenak daude. Guztiek dute maila akademiko oso ona eta bakarka zein taldean egin ahal diren kirol aukera zabala eskaintzen dute, bai eskolan bertan edo/eta baita herrian dauden instalakuntza ezberdinetan, honetaz gain eskolaz kanpoko ekintzak ere badaude. Ikastetxe publiko edo pribatuaren artean aukeratu daiteke.

BALIOZKOTZEA

Igo DBHtik 2. Batxilergoarte baliozkotu daiteke kurtsoa, baldin eta kurtso osoa egiten bada eta bai eskolak baita ministerioak ere ezartzen dituen baldintzak betetz gero, irakasgaiak aukeratzeari eta berauetan lortutako emaitzei dagokionean. Gu egingo gara honen kudeaketaren eta gastuen arduradun.

OSTATU HARTZEA

Ikasleak etxean hartzen dituzten **familia anfitrioiak** bisitatu eta ikuskatu egiten dira eta guztiek ezagutzen dituzte euren betebeharrak. Ikaslea familiako beste kide bat bezala tratatuko dute. Ostatu hartzea banakako logelan izango da eta mantenu osoko errejimenean (packed lunch eskolara eramateko). Ikasturtea **egoitza-eskolan edo bar-**

netegian egitea ere aukera bikaina da. Egonaldian zehar ikasle bakoitzak “tutore” bat izango du eta hau ikaslearekin, eskolarekin edo/eta familia anfitrioiarekin kontaktuan egongo da, ikaslearen egonaldia eta ongizatea gainbegiraturaz.

INTEGRAZIOA ESKOLAN

Iraunaldi laburragoa nahi dutenentzat aukera bikaina da Irlandako hezkuntza sistema ezagutzeko, eskolara joanez eta familia batekin elkarbizitzen. Programa honek kurtso guztia irauten ez duenez, ezin da baliozkotu.

IZENA EMATEKO EPEA:

Ekainaren 30a

PREZIOAREN BARNE

- Ikastetxeko matrikula.
- Familia anfitrioiaren aukeraketa, mantenu osoko errejimenean (Gabonetako eta Aste Santuko oporrak izan ezik).
- Herrialdeko hezkuntza sistemak eskatzen dituen azterketarako matrikula eta tasak (behar izanez gero).
- Irlandako antolatzaileen eta tutorearen gainbegiraketa.
- Aldian behineko txostenak.
- Aireportutik familiaren etxeraino lekualdaketa, kurtso hasieran eta bukaeran.



BALDINTZAK

- 13 urtetik 17 urtera izatea.
- DBH edo Batxilergoko ikaslea izatea.
- Ingeles maila egokia izatea.

- Dokumentuen tramitazioa Irlandan eta Hezkuntza Ministerioan baliozkotzea.
- Gaixotasun eta istripu aseguru medikua.
- Erantzukizun zibilaren aseguruua.
- Eskolako uniforme basikoa (baldin eta eskolan derrigorrezkoa bada).
- Eskola liburuak (6 irakasgai).

PREZIO HONETATIK AURRERA

Ikasturte osoa	16.750 €
Integrazioa 16 aste	9.150 €
Integrazioa 12 aste	7.775 €
Integrazioa 8 aste	5.975 €
Integrazioa 4 aste	4.175 €

ORDAINKETAK EGITEKO
ERRAZTASUNAK KUTXABANKEKIN.

